

## **ERRAUSKETAREN ALTERNATIBA: EKOIZPEN ETA KONTSUMO JASANGARRIKO GIZARTEA**

Idazki honen bidez **HARITZALDE** Naturzaleen Elkartek Aritzetan (Donostia) eraiki nahi den **Erraustegiaren inguruko iritzia** gizarteari plazaratu nahi dio:

Lehenik, HARITZALDE errausketa eta erraustegi guztien aurka dago.

Bigarrenik, Erraustegiak, besteak beste, Kyotoko hitzarmena, Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumen-Estrategia (2002-2020) eta Tokiko Agenda 21en adostasunak hausten ditu. Negutegi efektua eta klima aldaketaren erantzulea den CO<sub>2</sub> gasaren igorpenak murriztu ordez handitu egingo baitira.

Errausketak osasun eta ingurumenaren kalterako honako ondorioak sor litzake: Errausketarekin **ez dira zaborrak desagertzen**, toxinak sortzen ditu eta arnasten dugun airera eta errauts kutsakorretan bizi garen bizilekura pasatzen dira. Horren ondorioz herritarren artean gaixotasunak areagotuko dira, bereziki arnasketa sistemarekin lotura zuzena dutenak, asma esaterako. Dioxinak gainera kartzinogeno aski ezagunak dira eta arriskutsuenetariakoak. Metal astunak ez dira atzean gelditzen, biometagarriak dira eta Horien guztien ondorioz minbizi kasuek gora egin dezakete nabarmen. Errausketak igortzen dituen toxinek euri azidoa eragin dezakete, haizeak barreiatu inguruetara ezezik ehunka kilometrotara kutsadura irits daitekeelarik. Izan ere, erraustegiek besteak beste nitrogenoaren oxidoak (NO<sub>x</sub>) jaulkitzen dituzte zeinek Euskal Herrian trafikoa dela-eta dagoeneko euri azido arinak eragin baitituzte. Euri azidoak Alemania bezalako herrialdeetan baso askoren galera ekarri du, zuhaitzei hostoak hil eta erortzen zaizkielako. Era berean, azidotasunak Eskandinaviar lurretan milaka laku eta aintzira antzutu ditu. Euri azidoak basoetan nekazaritzan eragin haina izan dezake eta metal astunek laborantzako produktuak kutsatu ditzakete.

Laburbilduz, gaur egungo kontsumo ereduak, bermatu eta areagotu egiten du etengabeko zabor eta hondakinen errausketak. Zaborrek errausketak kutsakorrek diren substantziak sortzen ditu, non hondakinak eta metal astunekin batera airera botatzen diren. Gaur egun, dagoeneko badira hainbat enpresa, porlanezkoak, paperezkoak, burdingintza... kutsakorrek diren substantziak jariatzen dituztenak eta errausgailuak gehituko lituzke.

**!!!Erraustegia eta iraungipen arriskuan dagoen hegoaldeko zuhaitz-igela (*Hyla meridionalis*) ez dira bateragarriak garapen iraunkorraren ikuspuntutik!!!** Erraustegia eraiki nahi den lekua hegoaldeko **zuhaitz-igelarentzako** egokitutako Usurbilgo *Arpita* izeneko putzua eta Donostiako *Errotaberri* putzuaren **metro gutxitara dago, igeltxoaren habitatean bertan**. Administrazio guzti-guztietan **legea** argia eta zehatza da: “Iraungipen arriskuan dauden animaliak eta landareak babestez gain, beren habitatak edo **bizilekuak babestu behar dira, bereziki ugalketa-tokiak.**” Beraz, hegoaldeko zuhaitz-igelaren habitata suntsitzea, delitu ekologiko bezala tipifikaturik dago, bere iraungipena ekar baitezake. Nazioartean egindako azken ikerketen arabera, besteak beste, Planeta osoko anfibioen desagertzea eta ozono geruzaren mehetze prozedura lotuta egon liteke. Izan ere, ultramore izpiek indar handiagoz lur azalerara heltzen dira eta anfibioen azal primitiboan eragin oso negatiboak izan baitezakete. Bestalde, arestian aipaturiko uren azidotzeak ere anfibioen biziraupen-tasa ikaragarri gutxitu dezake. Errausketa gure ondoan galtzear dagoen espezie batekin fenomeno honen bultzatzaile bilaka liteke.

Guzti honez gain, HARITZALDEK erraustegiaren gaiarekin Administrazioak izandako jarrera ez du begi onez ikusi ondorengo arrazoiak direla eta: **Isilpean** erabaki dute zer tratamendu mota eman zaborrei eta non kokatu, **gizartearen iritzia kontutan izan gabe**. Ez da eragile sozialen partaidetza bultzatu. Ez da behar bezalako osasun eta ingurumen analisirik garatu. **Ez dakigu non metatuko diren toxinez eta metal astunez beteriko errautsak**, hau da, **minbizia eta malformazioak** sortarazten dituztenak.

Horregatik guztiagatik **HARITZALDE**k hurrengo **PROPOSATZEN** du:

- ✓ Sorreran gutxitu behar dira hondakinak eta horretarako Europar Batasun mailan lege bat adostu beharra dago **birziklaezinak diren produktuen ekoizpena zeharo debekatzeko eta gainontzekoena beheratzeko.**
- ✓ **Beheratzea, birziklatzea eta berrerabiltzea bultzatzea heziketaren bidez, derrigorrezkoa bilakatu arte.**
- ✓ **Berrerabilera sustatzea, orain arteko joerari buelta emanez**
- ✓ **Zabor organikoa bereizi, konposta egiteko eta ondoren ongarri bezala erabiltzeko.**
- ✓ Plastikoz eta enbalajez beteriko produktuak ontzi degradagarrietan saldu.
- ✓ **Hondakinez beteriko Planeta bat datozen belaunaldiei ez uzteko kontsumoaren eredu soziala goitik behera aldatzea bultzatu. Izan ere, egungo produkzio eta kontsumo sistema baita munduan zeharreko ingurumen arazoen iturria.**

Gauzak horrela, Haritzalde Naturzaleen Elkarteak hemendik aurrera Gipuzkoako Erraustegien aurkako Plataformen Koordinadorekin bat egiten du

**ERRAUSKETARIK EZ!!!**

Donostian, 2004ko abuztuaren 30ean

**HARITZALDE Naturzaleen Elkartea**